

U.Z.E.I.

MENDEZ MENDE

**HISTORI
AGIRITEGIA**

gidaliburua

ELKAR

Hezkuntza Sailak onetsia 1987-11-5

- © UZEI. Esterlines, 8. 20003 DONOSTIA
Tel. (943) 429838 - 429839
- © ELKAR, S. A. Esterlines, 10. 20003 DONOSTIA
Tel. (943) 426319

Depósito Legal: NA. 1.319-1987
ISBN 84-7529-487-1

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L.
Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

Zuzendaritza

Joseba Intxausti

Koordinazioa

Jose R. Kortabitarte

Aholkularitza didaktikoa

Rafael López Atxurra

Itzulpenak

Joseba Intxausti
Fernando Mendizabal

Lankidetzak

Maria Jesus Aranburu
Pello Arrieta
Txema Elvira
Lourdes Herrasti
Karlos Kortabarria
Jesus Odriozola
Maiteder Uribe-Etxebarria
Rosa M. Virto

Argitalpen-moldaketa

U.Z.E.I.

Agiritegia, Histori agiritegia... Zer da eta zertarako da hori, ordea? Dokumentu edo/eta agiri historiko edo historiografikoen bilduma da hemen, beste gabe, "Agiritegia" deitzen dugun lan hau. Beste edozein hizkuntzatan egin ohi den bezala, guk ere —oraingoan euskaraz— eskola-lanetarako bilduma bat hautatu dugu, Irakaskuntza Ertainetako ikasle eta irakasleentzat.

HISTORI AGIRITEGIAZ

Agiri-bilduma zabal bat euskaraz jarrita geneukan, eta premiazkoa iruditu zaigu altxor koskor horri erabilera didaktiko eroso bat asmatu, eta eskoletan dauzkagun euskarazko hutsuneak betetzen laguntzea. "Gurrutxaga" Histori Mintegian biltzen garenok --beti ere UZEIn esku-zabalki eman zaigun laguntzaz baliatuz— nahikoa erraza ikusten genuen, d.n.a zer-bait gehiago onduta, modu erabilgarri batean eskaintzea. Ahalegin horren fruitua da liburuska eta fitxategi honetan aurkezten dena.

Agiritegi orokorraz

Fitxa hauekin argitara ematen hasten garen langaiak kaleratzean, gure ametsetan eginkizun-esparru oso irekia ikusten dugu, lehen-lehenik "agiritegiak" ezezik bestelako "tegiak" ere behar ditugulako: iruditegiak, mapategia, fonoteka didaktikoa eta abar esan nahi da; eta, ondoren edo ondoan, agiritegi testualetan ere Histori alorraz gain beste hainbat barruti ere lantzeke daukagulako. Esatera goazenak ez du, ba, irakurlea batere harrituko.


"Histori Agiritegia" beste Agiritegi orokorrako baten banean ikusten dugu, hain zuzen giza eta gizarte-zientzia denak besarkatuko lituzkeen batean alegia. Izan ere, Irakaskuntza Ertainen Erreformarekin edo hori gabe, Historiaren irakaskuntza gainerako giza zientziekin batera begiratzeko dugu gure asmoetan. Hau da, orain Historiari eskaintzen diogun bildumaren ondoan, Geografiaz, Filosofiaz, Ekonomiaz, Soziologiaz edo dena delakoaz beste hainbeste egin beharko litzateke, irakasmundua osotasun batetan landu nahi bada bederen. Gu, noski, oraingo baliabideekin ez gara iritxiko hori dena lantzerako; baina ideia, bestelako egitekoen bide-ertzen batean galdu aurretik, idatzita utzi nahi dugu orrialde hauetan.

Giza eta gizarte-zientzietan aditu gutxi batzuk aski izango lirateke --ordu-sail on bat sartu ondoren-- honelako agiritegi berezitu batzuetarako hautapena eginda uzteko. Itzultzaile-multzo zaindu baten lana izan liteke ondokoa. Azkenik, lantaldean bildutako irakasle langile batek eman ahal izango lieke egokia litzatekeen fitxa-presentaera, azken orratz-keta bizkor batekin dena burututa uzteko.

Irakaskuntza Ertainetan langai idatzien zuloa berdintzeko ekinaldi on bat bederen izango litzateke hori. Gure oraingo Histori Agiritegia amestutako testuinguru zabal horretan lekutu nahi dugu, gerokoa, egin aurretik ere, gogoan hartuz. Horregatik, agiri bakoitzaren fitxaren kode-zenbakiaren ondoan H bat jarri dugu, oraingo hau etor litezkeen E (=Ekonomia), G (=Geografia) eta abarrekin nahas ez dadin.

Esandako hauek zerbait argiago uzteko, honelatsuko eskema batean laburbil geintzake asmoak:

GIZA ETA GIZARTE-ZIENTZIAK



Oraingoz, ba, **HA** (Histori Agiritegia) horri heldu zaio, Ekonomia, Geografia, Politika eta Soziologia alhora utziz.

Egitura eta edukin orokorrak

Baina oraingo gure lan honetara bilduz, Histori Agiritegira alegia, komeniko da lehenik bilduma honen **egitura** eta abar hasieratik bertatik ezagutzera. Itzulita dauzkagun 900 bat agiri edo testu historiografikoe-tatik lehenengo argitalpen-ekinaldirako 353 aukeratu ditugu, eta, 1987-1988ko ikasturtearen barnean, hiruzpalau emanalditan osatuko da Aro historiko guztiei dagokien fitxa-zerrenda: liburuska honekin batera doaz Historiaurreari eta Antzinateari dagozkien fitxak. Ondoko hilabeteetan, gisa berean joango dira beste emanaldiak: Erdi Aroa, Aro Modernoa, Aro Garaikidea.

Ikusten denez, fitxategian **gai-edukinak** segida kronologiko batean biltzen dira, baina, horrekin batera, barne-banaketa tematiko batekin

eratzen. Izan ere, bildutako langaiok lau barruti nagusi jasotzen dituzte: ekonomikoa, soziala, kulturala eta politikoa. Esparru hauetan bildu eta banatu ditugu eskuratutako guztiak. Honela, fitxategiari ordena eta argitasun hobekoak eman dizkiogula uste dugu. Berehala esango ditugunegatik, erabilgarriagoa gertatuko ahal da material hau guztia.

Aurrerago emango ditugun gidoi didaktikoen bidez egiten da fitxategi-tik zenbait hautapen, lan-gidoi proposamen horietan fitxategiaren ahalbide guztiak agortzeko asmorik gabe bada ere. Fitxategiaren egituraz hobeki ulertuko da dioguna, fitxen egitura azaltzean, edo emango ditugun gidoi eta aurkibideetan.

Hara baino lehen, ordea, eman diezaiogun gaingiroki begiratu orokor bat fitxategiaren edukinari.

FITXATEGIA	ARGITALPENA	FITXAK	AROAK	GAI-BARRUTIA	FITXAK
ITZULTAKO AGIRIAK 895 FITXETARAKO HAUTATUTAKOAK 353	1. Emanaldia	79	Historiaurrea Antzinatea	EKONOMIA	73
	2. Emanaldia	45	Erdi Aroa	GIZARTEA	75
	3. Emanaldia	129	Aro Modernoa	KULTURA	138
	4. Emanaldia	100	Aro Garaikidea	POLITIKA	67

Ehundaka fitxarekin gabiltzanez, komeni zen guztiari barne-loturak ordenamendu on batean ematea, eta saiatu gara halaxe izan dadin. Fitxa bakoitzean ispilatu nahi izan dugu hori.

Fitxaren egitura eta edukinak

Fitxa bakoitzak bi aurpegi dauzka, eta, esandako testuinguruarekin, berehala aipatuko ditugun edukinak ispliatzen ditu bere bi orrialdeotan. Esplikatu nahi duguna errazkiago eta argiago ere eman dezagun, fitxa bakoitzaren bi aldeak jaso egingo ditugu hemen:

HISTORIAURREAREN KRONOLOGIA

HA 1:001

KULTURA

100.000. XVIII/XVIII. mend.

A. Blanco Freijeiro arkeologoari hartu diogu testu hau. Historiaurrearen kronologiaz aurreko mendeetako europar erudit eta eskolatuak (usher artzapezuak, kasu honetan) situatu eritzi eta usteak aipatzen ditu autoreak. Hantik hona Arkeologiak eman dituen aurrerapenak zeharo alatu ditaste gure ezagutzak. Gogozia historiko jatorrak aurrealdintza bezala, kronologia finkatzea eskatzen du, nahitaez.

"XVIII. eta XVIII. mendeetako europar eskolatu batekatzat pisa egitenak eta usten 8.000 urte baino gehiagorik; K.a. 4000eko urtean ezarri auzo lehen artzapezuak; larrakoa egunkia, larrgia eta larrak egia sinesen eguna datatzeko eta horize segoen auzi hartan aitzakien lehenak; fitxapen batekatzeko gialboran, horrek eman ten zuten piazte argio-oroietako penitona larrakoa, jarraitu behar zuten lepoa, isan zen oratidik oratidita bat ere, kietura kieturagotia, mendaren hormeneko imaz txorretzago zehatu auzirik; K.a. 4000eko urtearen lehenko 1000en goitoko lehenat sietat post-epituzian auzi zen mundia.

Jainko kalkulak, sendak; Itrotop orratidatiboren degradatzen finkatua, 4.000 milioi urteko auzia egosten dione buruari; Hiru bat milioi urte kalkulaten dira hominidoak bi hanka sutizen hazi sinesetik; milioi l'endi erabat auzirik, gar bezala, ibiltzen hazi sinesetik (homo heidelberg).

(A. BLANCO FREIJERO, 1989)

Antonio Blanco Freijeiro arkeologo gaitziera da, garu egun Sevilla-ko Unibertsitateko Arkeologiko katedraduna. --Historiaurreari buruzko azken urteetako liter lanak eta beraren kronologiari buruzkoak zuzenkiago, disiplinarietako lanetan oinarritzen dira: sedimentologia, paleontologia, botanika, osteologia eta zientzia fisiko-kimikoetan.

Gisadaren sorburuetan buruz, Paleolitoak eta Neolitoak argibide osagarriak izuz: "Historia" (1): 11-56. orr., Antzoko datazio-problema izuz datatze "Mendez Mendek Aro Garaikidea" libururari: 135, 144, 145, 148, 150-151. orr.

ESKIZURAK

- a) Auzo historiko batetik Historiaurrearen auzirik kieturagotia auzo, garu espazietan dugobien auzoan hobotuz.
- b) Itzaz hitzeta egiteko batenko orratidatiboren, sedimentologia, paleontologia, botanika, osteologia eta zientzia fisiko-kimikoetan hobotuz eta auzoan.
- c) Finkatuz datatzearen erabilizten den auzoan Itzazko metakozu izuzuz da eguzi inkompletua.

EMANZITURAK

- a) Itzazko auzo testuan egiten dion bi auketaren mugak.
- b) Zehaztu Itzazko XVIII-XVIII. mendeetan ematen dion datuak.
- c) Zehaztu Itzazko gureko hainbat hainbat auzoetan dion.
- d) Gure egun zientzia dena Historiaurreko datuzioa zehazteko erabilizten dion metakozu.
- e) Zuzen da hominidoa, eta hominiduzio-prozesuaren pausu garrantzietan zientzia dion.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidatiburuko lan-gidoki orokorrak (1: 29. orr.; 11: 32. orr.) nahiz monografiak (25. orr.) begira itzazko: auzi da lan-gidokietan fitza honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, onduko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatze.

Lehenengo aurpegian **titulu orokor** bat topatzen dugu: "Historia: Agiritegia". Bi kontzeptuok darabiltzagu gure lanari lehenengo definizioa emateko. Historia: Oraingo haxe da aukeratzen duguna, baina ez Erreformako gai-barruti zabalagoak alde aurretik ere aintzakotzat hartu gabe. Izan ere, oraingo honetan lantzen duguna Historia dela aditzera ematean, giza eta gizarte-zientzietan lantzeke geratzen zaigun gainerakoa aipatzen dugu zeharbidez. Agiritegia ez da beraz osatuko harik eta Ekonomiak, Geografiak eta abarrek beste honelako zerbait ez duten bitartean.

Baina "Agiritegia" dela diogu hor, hau da, testu-bilduma historiko-historiografikoa: mapa, marrazki edo argazki historikoek, adibidez, ez dute hemen lekurik. Ez, noski, beharrezkoak ikusten ez ditugulako, beste honi lehentasuna eman diogulako baizik.

Titulu orokorraren eskubitan fitxari **kode** bat ematen zaio. Zertarako da hori, eta zer esan nahi du horrek? Kode hori batez ere fitxa bakoitzaren identifikazioa errazteko eta aipu-sistema erosoago bat sortzeko da (fitxaren azken apartatuan premiazkoa bait dugu aipu-kode bat). Gainera, egunen batean bestelako alorretan ere (Soziologian, Geografia eta abarretan) honelako fitxategirik garatuko balitz, kodeok lagundu baizik ez li-gukete egingo. Gure oraingo honetan "HA"ak "Historia Agiritegia" esan nahi du, bi puntuen aurreko zenbakiak Aroa, eta ondoko zenbakia Aroko zerrendaren barmeko zenbaki erlatiboa da.

Titulu orokorraren eta kodearen azpian bi datu jaso nahi izan ditugu: bata, Historiaren barmean fitxari dagokion **gai**-barrutiarena (Historia ekonomikoa, soziala, kulturala edo politikoa), eta bestea agiriaren barmen nahiz agiriko gaiari dagokion **data** edo garaia. Bi datu hauei esker erabiltzaileak berehala sailkatu ahal izango ditu fitxak, kronologikoki, nahi badu, edota gai-barrutietan bestela. Horrela, ikasturte osoko programa nahiz barruti monografikoak (iraultzak, ideia erlijiosoak, lanaren antolamendu soziala, etab., adibidez) eratzeko erraztasuna aurkituko du irakasleak.

Fitxaren testua, **atariko ohar** batekin hasten da; normalean, ohar hori oso laburra da, eta ondoko agiriaren edukinari begira idatzi dugu.

Edukin-gaiaren lekumendu historikoa azpimarratu dugu gehienetan, eta sarritan agiriaren ingurumari historikoak zerbait argitzen saiatu gara. Esan bezala, dena guztiz labur. Testuaren edukina deskribatzea edo laburtzea ia beti ikasleari uzten diogu, egiteko hori beraren lanetako bat dela uste bait dugu. Dena den, sarrera-ohar honek lehenengo eztenkada baizik ez du izan nahi; horko argibideak osatu eta borobildu ikasleak egin beharko ditu.

Ondoren, fitxa bakoitzerako hautatu dugun dokumentu edo **agiria** dator. Hau da fitxa-ale bakoitzaren bihotza, agiritegian lanerako eskaintzen dugun aztergaia. Fitxako gainerako guztia, lagungarri izango zaie ikasle-irakasleei, baina beti ere dena da baztergarri, agiri hau ezik. Agiri hauek askatasun handi batez aukeratu ditugu: batzuk luzeak dira, besteak motzak; behin baino gehiagotan, puntu eta argitasun zehatzak dakartzate, baina badaude gai abstraktuagoak ere; inoiz gai anekdotikoak aukeratu ditugu, eta badago sakonera doan gogoramenik, edo denboraren harian iraupen luzeagoei begiratzen dienik. Ideologikoki, ikusi ahal izango denez, lotsa handirik gabe eklektiko izatera jo dugu, irakasle bakoitzak, edo ikasleak ere, non eta zer aukera izan zezan, askatasun zabal batean. Bestalde, irakasmilari edo ikasturteari dagozkienetan ere libertate berarekin jokatu dugu; ez da ematen fitxen mailaketarik: alde batetik, ikasle bakoitzari egokituriko aukera irakasleak berak egin dezan, eta bestetik, agiri bat bera maila ezberdinetan landu litekeelako ere bai (ik. aurrerago "Testu-iruzkinaren eredu aplikatua").

Fitxaren lehenengo orrialde horretan, azkenik, agiriaren **autorea** aipatzen da kasik beti. Ohar labur honek bi edukin-mota ezberdin izan ditzake: garaian garaiko agiri historikoetan, autorearekiko albisteek balio historiko osagarria ematen diote agiriaren edukinari; eta agiri historiografikoetan, ostera, gaur eguneko historilarien mundura bultzatu nahi da ikaslea, historilari bat aurkeztuz, edota historiografia modernoaren kezka edo arlo nagusiren bat azpimarratuz.

Fitxaren bigarren orrialdean, guk taldean landuta dauzkagun **euskarazko langaiak** gogoratzen ditugu, izan ere ezin liteke esan Irakaskuntza

Ertainetarako langai historiko lar dugunik, eta eskuartean ongi ezagunak ditugun kontsulta-materialak gogorarazi nahi izan dizkiegu ikasle-irakasleei. Batzutan, agiriarentzat testuinguru historiko zabal erokorra topatuko da testuliburu aipatueta; bestetan, berriz, testuinguru aipatua askoz ere hurbilagoa eta zehatzagoa gertatuko zaio agiriari. Dena den, gehienetan ere laguntza baliagarria, guk uste.

Horren ondoren, lanerako bi apartatu eskaintzen ditugu: "Egitekoak", "Erantzutekoak". Hark ekintzara eztenkatu nahi du batipat ikaslea; eta bigarrenak, ikas-lanera eta idazketara. **Egitekoak**, sarritan liburu tartean burutu beharko dira, baina ahalegindu gara, herriko edo, oro har, bizitzako saltsara ere bultzatzen, eta ikaslea bere inguru sozialera gidatzen. Irakasleak berak izango du burutasun hoberik ere, eta libreki asmatu besterik ez dauka, noski. Eta ikaskizun direnetan murgilerazteko **Erantzutekoak** eskaintzen ditugu: galderak, alegia. Esan gabe doa, aukeragarriak direla galderak, edota bestelakorik bilatu edo asmatu nahi baltz, baita baztertzeko ere, libreki beste bideren batetik ibiliz. Hemen ere, gure aldetik, laguntza bat aurkezten dugu, beste gabe.

Fitxa-orriaren azken laukitxoan ematen dugun oharrak agiritegiari egin diogun gidaliburu honetaraxe bidaltzen du: lan-gidoietan ematen ditugu beharrezko argibideak. Fitxaren **kode-aipua** gidaliburuko lan-gidoi orokorretan nahiz monografikoetan aurkituz gero, kidekoak ere berehala topatu ahal izango dira, lan-programa berriak eratzeko. Hiru motatako programak asma litezke, bederen: a) Garaiz garai doana bata (programa tematiko diakronikoak), b) Garai berekoa dena bestea (programa tematiko sinkronikoak) eta c) Monografikoa hirugarrena (puntu bereziren bati dago-kiona). Fitxa bakar batek balio du, noski, ikasle-talde osoa lanean jartzeko; baina behin baino gehiagotan egokia izango da, agiritegiaren bidez, aro edo belaunaldi baten garaia alde ezberdinetatik aztertzea (ikuspegi sinkronikoa), edo gai-barruti orokor bat (kultura edo ekonomia, adibidez) mendez mende ikustea (ikuspegi diakronikoa), edo gai monografikoa-goren bati ekitea (gizarte-klaseak edo monarkia, adibidez). Ikusiko ditugun kode-kateok agiritegian aurki litezkeen ibilbide batzuk proposatzen dituzte, agiritegian dauden ahalbide denak agortu gabe, noski. Lan-gi-

doi en kode-sistema honen bidez agiritegia bere barnetik artikulatu eta barne-lotu nahi izan dugu. Inoiz, Historiaz gain, beste giza eta gizarte-zientzietan honen antzeko agiritegi kodeturik izango bagenu, dena batera ere honelatsu ordena genezake, langaien bilaketa eta elkarretaratzea erosoak eta praktikoak izan daitezten.

Esandako hauek osatuz, komeniko da langaion erabilera didaktikoaz ere zerbait esatea.

TESTU-IRUZKINA HISTORIAN

Aspaldidanik hona, Historiaren didaktikan erabili izan den irakas-eta ikas-metodoetako bat dokumentu edo agiri idatzien azterketarena izan da. Edozein metodo mugatuk bezala, baditu alde onak eta eskasagoak; baina, uste dugunez, irakasleari dagokio langai hauek dosi orekatu eta didaktiko batean hautatu eta erabiltzea. Gure aldetik, hemengo bilduma honetan eskaintzen direnei fruiturik onena ateratzeko, bidezkoa izango da testu-iruzkin itxuroso batek eskatzen dituen baldintzei buruz oharren bat edo beste egitea.

Ohar teoriko orokorrak

Historiaren Didaktikaz arduratuek modu ezberdinetan azaldu izan dizkigute testu-iruzkin jator bati legozkiokeen baldintzak: pentsa daitekeenez, adituok gogoz saiatu dira Historiako edukinek, testu hautatuen baliok eta gaur eguneko ikasleek beharko lituzketen baldintza zuzenak teoriarik eta praxiarik zaintzen. Testu-iruzkinean aurkitutako eragozpen teoriakoak ugariak izan dira, eta eredu praktikoak aurkeztean ez dira bat etorri.

Testu historikoen erabilera didaktikoa zaintzeko, bidezkoa ikusi dugu konstatazio eta erizpide batzuk ematea. Hona, ba, oharrok:

1. Idazkiz inguraturiko mundua

Gutenberg-en garaitik gaur egunerarte pilatu den idatzitako testuen kopurua kalkulaezina bihurtu da. Inprimategia, administrazioaren hedapena, zientzi eta ezagutza-esparruen ugalketa, hezkuntza sistemaren orokorpena, mas eta multimedien inguruan gertatu diren abantzuak, etab.en moduko elementuen eraginez gertatu izan da aipatu testuen presentzia nabarmen hori.

Errealitate anitz jasotzen dute testuek eta honen ondorioz testu beraien izaera era askotakoa izango da. Honela, bada, errealitatearen eta gizabanakoaren artean, idatzitako testuen bitartekotza aurkitzen dugu. Beraz, gizabanakoa, errealitatea ezagutzeko eta menperatzeko behaketa zuzenaz eta metodo enpirikoaz bilatzeaz gain, testu idatziak erabiltzera eta beroiek ulertzera eta aztertzerara behartuta dago, zeren eta errealitatearen idatzitako errepresentazioez inguraturik aurkitzen bait da (idatzitako prentsa, liburuak, iragarkiak, panfletoak, etab.), berauek eskaintzen dituzten munduikuskerekin.

Baina idazkia, sarritan, gertaera bihurtzen da, errealitatearen sortzaile (legea, aginduak...), edo errealitate ezberdinak hurbiltzen ditu (nazioarteko akordioak, kontratu juridikoak --publikoak edo pribatuak--, pertsonarteko eskutitzak...). Eguneroko bizitzan, bada, gizabanakoa, bere hiritartasun osoaren jabe izan dadin, egunerokotasunean erabiltzen dituen idazkiak ongi ezagutzera eta ulertzera beharturik aurkitzen da: horra hor, esate baterako, prentsa, ziurtagiriak, kontratuak, arauak, etab. Ikusten denez, gizabanakoa, gaur egun, errealitate ugari eta ezberdinetan murgildurik aurkitzen da eta horietara heltzeko era askotako idazkiz baliatzen da, beraz hizkuntz mota, lexikoa eta analisi metodo ezberdinez jabetu behar du.

Azken urteotan, irakaskuntz arloan, batetik bizitzaren arazo praktikoekin hurbildu asmoz (ikus prentsaren erabilera) eta bestetik heziera aktiboagoa lortu nahian, irakaslearen hitzaren monopolioa eta ezagutzara heltzeko zen testuliburuaren bide bakarra murriztu nahi izan dira, honetarako testu-iruzkinaren inguruan sortzen den elkarrizketa ardatz bihurtzen delarik. Irakas-historiaren irakaskuntzak ildo honi jarraitu dio, historiako agiritegien argitarapenek bide hau errazten dutelarik.

Historiak giza esperientzia biltzen duenez, gizarteek denboran zehar gauzatu dituzten errealitate konplexu eta anitzak ulertzeko bideak eskaini ditzake. Beraz, agiriak eskaintzen dituzten errealitate historikoaren maila ezberdinak aztertuz, lehenaldian eta orainaldian gizakiak eta gizarteek funtsezko arazoei eskainitako irtenbideak azter ditzakegu. Horra hor, esate baterako, gizarte-harremanak, gatazken konponbidea, boterearen antolakuntza, erakundeak, baliabide ekonomikoen erabilera, eguneroko bizitzaren antolaketa, ezaugararako dituen bideak, sineskerak, etab.

Ikasgela mailako agiri historikoen erabilera honek, era askotako errealitateekin harremanetan ezartzeaz gain, ezagutza sortzeak dituen arazoetara eta metodo historikoaren mundura hurbiltzen gaitu. Ikus dezagun, bada, agiri-iruzkinaren balioa eta mugak zeintzuk diren.

2. Ezagutza historikoa eta agiri-iruzkina

Historilariak bere lanean, hau da, historia berreraikitze-prozesuan erabiltzen dituen abilezia intelektualetan trebatzea litzateke, hain zuzen ere, agiri-iruzkinaren balioa. Agiri historikoa, beraz, ez da historia, lehenaren testigantza jasotzen duen lekuko bat baino. Beraz, historilariak bere lanerako erabiltzen duen lehengaia da. Historia moduan ezagutzen duguna, beraz, historilariak lehengai horiek erabiliz eta beroei langai edo prozedura intelektual batzuk (teoriak, kontzeptuak, hipotesiak...) aplikatuz sortzen duen ezagutza edo lehenaren berreraiketa izango litzateke.

Aipatu lehenaren berreraiketa hori dokumentu ugari eta era askotakoak aztertu ondoren sortzen den zerbait denez, ezin dugu pentsa agiri baten iruzkina burutuz gai edo garai historiko bat bere osoan menperatu dezakegunik, ez eta gutxiago ere. Bestalde, historilariaren lanean osotasunaren asmo hori etengabeko ahalegin intelektuala- ren bidez lortu nahi da, baina sarritan dokumentu-hutsuneek gaiaren jarraikortasuna apurtzen dutenez, derrigorrezkoa gertatzen da bate- tik garaian garaiko ezagutza historikoaren mailaz eta mugaz ohar- tzea, eta bestetik, eragozpen hauek gainditzeko arakatu behar diren bide berriak urratzea. Hona hemen, bada, historilariaren lanak duen gakoa.

Ikasgela-mailan burutzen den agiri-iruzkinak konplexutasun-maila hau ez badu eta bere mugak baditu ere, eskala txikiago batean antze- ko arazoak planteatzen ditu. Esan bezala, agiri baten iruzkina buru- tzearen xedea ez da izango beraz gai edo garai historiko bat bere osoan berreraikitzea, historilariaren lan edo metodoetan trebatzea baino. Aldi berean, iruzkinen bidez ezagutza historikoa sortzeak dituen eragozpenak eta ezagutza-prozesu hori nola burutzen den uler- ditzakegu.

Lehenengo eta behin kontura gaitezen historilariaren (subjektua) eta dokumentuaren (objektua) artean sortzen den elkarrekintza. Jakinik jada dokumentua ez dela errealitate historikoa bera, errea- litate horretara heltzeko dugun bitartekoa baino, agirian ispilatzen dena ezin dugu itsu-itsuan onartu; beraz, irakurketa sineskorra baz- tertzen saiatu behar dugu, eta alderantziz gertaeren objektibitateaz eta gertaerak kondatze-prozesuan sortzen den balorazio subjektiboaz ohartzeak izan behar du gure helburua. Bereizketa hau egiteko mese- degarri gertatzen da, hizkuntza bera aztertzeaz gain, agiria idazten duenaren funtzioa, rola, agiriaren zergatia eta agiria nori zuzendua den jakitea.

Bestalde, irakurlearen beraren ikuspuntuak (teoriak, kontzeptuak, gaiari buruzko ezagutza maila...) agiriaren irakur-prozesu horretan duen eragina ezin dugu ahaztu. Halaber, gogora dezagun estrapolazio errazak eta interpretazio anakronikoak egiteko arriskua handia dela. Beraz, irakurlearen eta agiriaren arteko elkarrekintza honek agiri-iruzkinean duen eraginaz ohartuz, agiri-iruzkinaren edo analisaren xedea agiri historikoa idatzi duenaren barne- eta kanpo-mundua ulertzea litzateke, garai bakoitzeko portaera eta gertae- ren funtsetan murgilduz. Helburu hau lortzeko beharrezkoa gertatzen zaigu empatian trebatzea, hau da, norberaren egozentrismotik, sozio- zentrismotik eta orainaldikotasunetik aldentuz, historian zehar ezberdinak diren balore eta portaera erreferentziaz baliatzea.

3. Agiri-iruzkinaren erabilera

Irakaskuntz prozesuan agiri-iruzkinaren erabilera, maila ezberdinetakoa izan daiteke, eta, halaber, era askotako helburu lorpene- kin elkar daiteke.

Ikasturtearen programazioa bera ere modu ezberdinetan burutu daitekeenez, agiriaren antolaketa ere hautatu programaziora molda dai- teke; horra, esate baterako: eredu kronologiko-progresiboa (lehenal- ditik orainaldira), eredu erregresibo edo atzeranzkoa (orainalditik lehenaldira), gaien edo arazoaren arabera diseinua (boterea, talde sozialen sorrera, aldaketa sozialak...), azken hau denbora luze ba- tean zehar izan duen bilakaera aztertuz, edo epe motzagoan barna gaia sakonkiago aztertuz burutu daitekeelarik.

Bestalde, gai baten ikastaldian zehar, agiria une eta erabilera hauekin sar daiteke: gaiaren hasieran, eragingarri gisa; irakaslea- ren azalpenaren ondoren, ikasleek jaso dituzten ezagutzak finka- tzeko, zabaltzeko, ñabartzeko edo eraldatzeko; agiriaz edo agiriez ardatz legez baliatuz, gai bat ezagutzeko; ikasitako ezagutzak eba- lutzeko.

Agiri-iruzkinaren bidez ikaslearen partaidetza eta aktibotasuna (abilezia intelektualari dagokiona) suspertu nahi dira. Honek ez du suposatzen irakaslearen funtzioa zokoratzen denik, alderantziz bere iharduera, arrazionalagoa bihurtzea eskatzen du. Honela, honoko pun- tu hauek kontutan izan beharko ditu: a) agiri-iruzkin bakoitzean lortu nahi diren helburuak zehazki planteatzea, b) agiria argituko duen edukinaren azalpena alde zurretik azaltzea, c) agiri-iruzkin bakoitzari dagokion analisi-metodoa eta maila ezberdinetako galderak planteatzea.

a) Helburuak formulatzean kontutan izan behar ditugu, lortu nahi diren edukin-mailak eta abilezia intelektualak. Jakinik era askotako errealitate historiko eta agiri-mota ditugula, bakoitzaren informa- zio-maila ezberdina izanik (datu solteak, deskribaketa zehatzak, interpretazioak...), bidezkoa gertatzen da agiri bakoitzak ematen dizkigun posibilitateak neurtzea.

Beraz, agiri-iruzkin bakoitzean zer lortu nahi dugun ikasleei argi azaldu behar diegu, esate baterako, honoko gaitasun hauek: agiri-argian agertzen den informazioa sailkatzea; funtsezko ideiak edo gaiak eta bigarren mailakoak bereiztea; gertaera objektiboak eta berorietaz egindako interpretazioak ezberdintzea; lexiko historiko espezifikoa menperatzea, narrazioa edo deskribaketa bat azalpen kontzeptual moduan agertzea; gertaera ezberdinen artean harreman kausalak aurkitzea; beste baliabide batzuk erabiliz, agiriak eskaintzen duen informazioa sakontzea edo gonbaratzea; orokorpenak, ondorioak edo aplikazioak burutzea, etab.

Ikusten denez, molde askotako helburuak ditugu eta berorien mailaketa da, hain zuzen ere, irakaslearen lehenengo eginbeharra (mailaketa, lan prozedura sinpleenetatik hasi --informazioa sailkatzea-- eta goren mailako abstrakzioetara eramanez).

b) Halaber, agiriari bere mamia eta esanahia ateratzeko, beharrezkoa gertatzen da beronen testuinguru historikoa ezagutzea. Sarritan ikusten dugu, ikasleek duten informazio murriztagatik, agiri-iruzkinetan nola ateratzen diren ondorio hain eskasak. Beraz, agiri-iruzkin zehatz bat burutzeko, alde zuzenetik gaiari buruzko edukinen azalpen-maila egoki bat beharrezkoa gertatzen da, eta azalpen honen barnean kategoria edo kontzeptu historikoen azalpena elementu garrantzitsuenetarikoa da, zeren eta agiriaren agertzen den informazioari ordena eta koherentzia emateko gaitasuna bait du. Era honetara, ikasleen aktibotasun inductibo antzua gaindi dezakegu. Hau da, irakaslearen aldetik azalpen-maila egoki bat eskaini ezean, ikasleak, agiriaren informaziotik abiatuz, abstrakzio-maila batera nekez helduko dira.

c) Agiri-iruzkina burutzerakoan metodo historikoen helburu diren agiriaren benetakotasuna eta egitasuna finkatzeari heltzen diogu, honetarako agiriaren kanpo- eta barne-kritikaren metodologiak baliatuz. Baina historiaren eremuan askotako agiriak izanik (ekonomikoak, sozialak, politikoak, juridikoak...), agiri bakoitzak errealitate berezi bat eskaintzen du; bestalde, agiri bakoitzean ikasleek duten mailatik abiatuz helburu espezifiko batzuek lortu nahi ditugunez, agiri berorien barnean murgiltzeko analisi-metodo eta lan-prozedura bereziak sortu beharko ditugu. Ez dago, beraz, iruzkin-modu bakar bat, aipatu bi aldagai horien inguruan eraikitzen diren bezainbeste baino.

Beraz, agiri-iruzkina bideratzeko eta lortu nahi diren edukinen ulerkuntza eta lan-prozeduren domeinua erreferentziatuz izanik, irakasleak agiri bakoitzaren inguruan galdera zehatzak planteatu beharko ditu. Aipatu bi aldagaien ildoari jarraituz eta, halaber, irakaslearen garapen psikologikoa kontutan harturik, galderen formulazioak konplexutasun maila ezberdinak izango ditu.

Gu, gure fitxetan, ahalegindu gara, irakurri eta ikusitakoetatik, bide praktikoa bat aukeratu eta urratzen. Beraz --arazo teorikoetan ito gabe, baina gogoan ditugula noski--, Agiritegia erabiliko duten ikasle-irakasleei gogoan izan ditugun azterbideak aurkeztuko dizkiegu. Bi mol-detakoak dira:

1. Testu historikoen iruzkinetarako geure taldean landutako azterbide orokor bat ematen dugu, lehenik. Ez diogu oharrik egiten, bere puntuz puntuko soiltasunean aurkituko du irakurleak. Uste dugunez, irakaslearen trebetasunak eman ahal izango dio horri argitasun osatuagorik, R. L. Atxurak egindako oharrak ahortzi gabe.

2. Testu-iruzkinetarako beste aurrera-pauso bat emanez, iruzkin-saio bat ere eskaini nahi dugu. Rafa L. Atxurak prestatu digu hau ere, gainerako talde-lagunoi bere Histori Didaktikaren alorretik eskua luzatuz. Alde batetik, ariketa praktikoa bat da, agiri jakin baten gain prestatutako iruzkina alegia ("Merkatu-lehiaketa"); baina, bestetik, testu-iruzkinaren gure eskemari perspektiba zabalagoak irekitzeko saiakera. Bi balioak dira gogoan hartzekoak.

Testu-iruzkinetarako eskema

Esan bezala, Agiritegia prestatu duen taldeak ondoko eskema hau gogotan hartzea eskatuko lioke fitxa hauen erabiltzaileari, batez ere hastapenetan, beraz itsumutil laguna izan daitekeelakoan. Bost pauso nagusitan banatu dugu iruzkin-lana.

1. Testuaren irakurketa

- 1.1. Taldean edo banaka.
- 1.2. Patxaraz eta arretaz.
- 1.3. Ulertu (hiztegia, testuliburua, irudiak, etab.).
- 1.4. Testua zenbakiztatu.
- 1.5. Azpimarraketak egin.

2. Testuaren sailkapena.

- 2.1. Testu-motak:
 - 2.1.1. Juridikoak.
 - 2.1.2. Literarioak (saiakera, memoriak, eskutitzak...).
 - 2.1.3. Inguruabarrezkoak (zirkunstantzialak).
 - 2.1.4. Historiografikoak.
- 2.2. Sailkapenaren arrazoiak.
- 2.3. Egilea:
 - 2.3.1. Egilearen nortasuna.
 - 2.3.2. Egilearen esanahi historikoa.
- 2.4. Leku-denborazko ingurumena:
 - 2.4.1. Dokumentuaren data.
 - 2.4.2. Inguru historikoa.
- 2.5. Agiriaren xedeak:
 - 2.5.1. Publikoa/Pribatua.
 - 2.5.2. Agiriaren asmo eta helburuak.

3. Testuaren azterketa

- 3.1. Oinarrizko ideien sailkapena.
- 3.2. Erreferentzia historikoen argibideak.
 - 3.2.1. Erakundeak.
 - 3.2.2. Pertsonaiak.
 - 3.2.3. Gertakariak, etab.

4. Testuaren iruzkina

- 4.1. Inguru historikoarekiko esanahia:
 - 4.1.1. Gizartean eta ekonomian.
 - 4.1.2. Politikan.
 - 4.1.3. Kulturean.
- 4.2. Balioztapen historikoa.
 - Eritzi kritikoa.

5. Iruzkina

Puntuz puntu, kasu bakoitzean dena horrelaxe egin beharrik ez badago ere, eskola-lan hauei ordena eta logika eman diezaike gidoiak. Dena den, eskema-gidoi hau askatasunez erabiliz, agiri iruzkindu baten eredia aurkezten dugu orain.

Testu-iruzkinaren eredu aplikatua

Aurkezten dugun iruzkin hau, aurreko eskemaren aplikazio xuxen-xuxena izan gabe, berorren egiaztatze libre eta sakondua da, eta bere "Erantzutekoetan" ikasmaila ezberdinetarako proposamen hautagarriak aurkezten ditu.

Rafa L. Atxurra

Ondoren, adibide gisa, ematen den testu-iruzkin honen aurretik komeniko da, atariko bezala, ohar llabur batzuk eranstea.

Merkatu-lehiaketari buruzko agiri honek eskaintzen duen bi naziotako informazio ekonomikoetan abiatuz, iruzkin honen xedea, aipatu gaiaren testuingurua (Frantzia eta Holandako egitura politiko-ekonomiko kontrajarriak, hau da, Antzinako Erregimeneko paradigma edo eredu absolutista-merkantilista, Estatu modernoaren euskarrri direnak, eta paradigma europar nagusi honen barnean Holandak agertzen duen berezitasuna) ulertzea izan da, aipatutako agiri horri zentzua emango diona testuingurua bera bait da.

Horretarako, batez ere testuliburuak ("Mendez Mende. Aro Modernoa") eskaintzen duen informazioaren (6. ikasgaia) eta honez kanpo osagarri diren beste baliabide batzuren (bibliografia, atlas, hiztegi...) erabileraren balioa azpimarratzen dugu. Beraz, agiriaren, testuliburuaren eta baliabide bibliografikoen elkarrekintza bultzatzen da, datuen arteko harremanaz eta sintesi gaitasunaz jabetzeko.

Bestalde agiri bakoitza konplexutasun maila ezberdinetan azter daitekeenez, hiru mailatako galdera motak planteatzen dira. A) mailarekin, batez ere, agirian agertzen den informazioa finkatzea, ordenatzea eta sailkatzea eskatzen da. B) mailan, berriz, gertaeren artean dauden harremanez eta gertaeren zergatiaz eta ondorioaz ohartzeko prestaturik daude galderak. C) mailan testuinguruak bere osoan ulertzeko sintesi-gaitasuna eskatzen da. Enpatia alorrean, agiria idatzi duenaren rolean sartzea eta hartzen dituen erabakiak ulertzeko eskatzen da. Halaber, estruktura ezberdinen arteko elkarrekintzaz jabetzeko bideraturik daude.

MERKATU-LEHIAKETA

"Frantziak gaur egun 200 ontzi ditu bere portuetan, egoera onean; holandarrek 16.000 zituzten 1658an. (...). Erregeren boterea lehorraldean gainerako Europako guztien gainetik dago, baina ahulagoa da itsasoan. (...).

Komeni da, merkatalgoa zein egoera kaskarrera etorri den xeheki ikustea. Baina begira barne-merkatua eta portutik porturakoa: oihal- eta zirrikiton-manufakturak eta bestelako ehunak, papereria, kinkaileria, zeteria, miesak, xaboiak eta, oro har, gainerako manufaktura guztiak kasik erabat hondatuta egon dira eta daude oraindik ere.

Holandarrek ostopatu egin dituzte gure eskulanak, eta orain manufaktura berorietzek ekartzen dizkigute, horrela beren kontsumo eta trafikorako behar dituztenak guri ateratzearren (...)". (COLBERT, J.B., 1663)

A) AGIRIAREN JATORRI, IZAERA ETA HELBURUAK

1. Testuaren izaera

XVII. mendeko (1663) agiri historiko honek Frantziak bizi duen egoera ekonomikoaz hitz egiten du, beraz testu eta **gai ekonomikoen** alorrekoa dela esan genezake. Horra hor lerroetan zehar agertzen diren ekonomi saileko hitzak edo lexikoa (merkatalgoa, barne-merkatua, eskulanak, manufaktura, kontsumoa, trafikoa) eta gaia bera (Frantziaren eta Holandaren arteko merkatu-lehiaketa).

Bestalde, gobernu gizon batek idatzi duenez eta abagadune ekonomiko baten diagnostikoa denez, testu hau, zehazkiago esanda, **politika ekonomikoari** dagokion testu-sailean koka genezake.

2. Testuaren jatorri edo sorburua

Egilearen biografia kontutan izanik (Colbert kargu publikoa zen: finantz ministraria), testu honen sorburua izen propioa duen aginte publikoan datza. Beraz, gobernu-ardura batetik abiatuz burutua izan da (ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa": 318. or.). Baina, dena den, Gortean azaldutako hitzaldi bat ala berak idatzitako liburu baten atal bat den ez dakigu zehatz-mehatz.

3. Nori zuzendua

Idazkiaren egilea gobernu-gizona izanik eta idazkiaren beraren gaia erresumari dagokion egoera ekonomikoaren azterketa deskribatzailea bada, badirudi idazki hau, lehenengo eta behin, gobernu edo administrazio-ardura dutenei zuzendua dela, eta idazkia argitaratua izan bada, badaiteke "nazio osoari" zuzendua izatea. Hori, bai, nazio osoa aipatzen badugu ere, ez dugu ahaztu behar XVII. mendeko egoera kulturala, zeren eta letragabeak gehiengoa ziren eta letratuak elitean (aristokrazia, kleroa, burgesia) soilik aurkitzen bait ziren. Beraz, gizartearen eta ekonomian eragina dutenei eta erabakiak hartzeko gaitasuna dutenei zuzendua izango litzateke.

4. Xedeak

Aurreko lerroetan esandakoa kontutan izanik. Colbert-en idazki honen xedea erresumaren bizitza ekonomikoan eta beronen administrazioan erabakiak hartzen dituztenengan eragina edukitzea litzateke, azken finean beroriek errealtate ekonomikoarekiko duten oharrena sakonduz edo, beharbada, aldatuz. Aipatu eragin hori lortzeko Colbert-ek bide hau jarraitzen du.

a) Frantziako ekonomi alorreko datu kuantitatibo eta kualitatiboak eskaintzen ditu.

b) Frantziaren eta Holandaren arteko datu ekonomikoaren gonbaraketa egiten du, Holandaren bultzada ekonomikoak Frantziaren ekonomian dituen eragin kaltegarriak azpimarratuz. Beraz, Frantziako ekonomi alor batzuren egoera kaskarraren zergatia Holandaren konkurrentzia ekonomikoan aurkituko litzateke.

c) Datu ekonomiko horiek emanez, Frantziaren errealtate ekonomikoarekiko oharren ezkor bat eskaintzen du, errealtate hori Monarkia Absolutuaren botere-asmoen eta errealtate ekonomikoaren arteko desoreken argitan jarritz.

d) Azken buruan, egoera ekonomikoaren azterketa honen bidez Colbert-ek politika ekonomiko frantsesa bideratzeko behar zuen giroa prestatzen zuela uste dugu, hau da, barne- eta kanpo-politikan behar ziren erabakiak hartzeko giroa, hain zuzen ere.

B) AGIRIAREN AUTOREA

COLBERT, Jean Baptiste (Reims 1619-Parise 1683). Mazarino kardinalearen (1543-1661) aiutari pertsonala eta Luis XIV.aren finantz eta flota-ministraria zen. Erregearen finantz-kontseiluaren batzarkide garrantzitsuenetariko bat izatera heldu zen, 1662-1683.etan Finantz Gainbegiratzaille orokorra izan zelarik.

Haren politika ekonomikoaren eraginez Frantzia herri europarren artean nagusitasun politikoa lortzera iritsi zen, XVII. mendearren bigarren erdialdean. Halaber, Frantziaren batasun politikoaren bi-deak erraztu zituen.

(BARRACLOUGH, G. Le Grand Atlas de l'histoire mondiale. Albin Michel, Verona, 1979. 319. or. Diccionarios Rio-duero. Historia Universal II. Madrid, 1980, 65. or.).

C) AGIRIAREN TESTUINGURU HISTORIKOA

1663an Colbert-ek ezagutu eta bizi duen egoera historikoa deskribatuko dugu ondoko lerroetan.

Testuinguru politikoa

- **Frantzia:** Botere politikoaren antolamendu-alorrean, Monarkia botere-kontrolaren garapen osora heldu da. Erregearen aginte absolutuaren (Absolutismoa) teorizatzaileen ideiak (Bossuet. "Mendez Mende. Aro Modernoa", 292. or.) gauzatu doaz, erret boterearen sendotzea administrazioaren hedapena dela medio burutzeraino (Ibidem: 292-298. orr.), eta 1663an jada bitarteko botereak (Parlamentua) eta nobleziaren erresistentziak (Fronde) lur jota zirela (Ibidem: 300-301). Frantziako lurralde historikoak berriz Koroapera bilduta ziren, Estatu-eredu zentralista honetan Erregearen pertsona eta Estatua bat eginez (Ibidem: 301-304. orr.).

(Monarkiari buruz ikus ABOS SANTABARBARA, A.; MARCO MARTINEZ, A.: Diccionario de Términos básicos para la historia. Alhambra, Madrid, 1983, 399-403. orr. Beste monarki ereduak aztertzeko, ikus Monarkia ez absolutuak: "Mendez Mende. Aro Modernoa": 310. orr.).

- **Holanda:** Botere politikoaren antolamendua. Eredu frantsesari kontrajarriz, Holandaren sistema politikoa daukagu. Espaniar errege Felipe II.aren botere absolutuaren aurka altxatuz beste gobernu eredu bat eraiki zuten: Errepublikak. Sistema honetan agintea ez da pertsonala, ez heredagarria, ezta bizitza guztirakoa ere, monar-

kian gertatzen den eran, hautatutako herri ordezkariak eratzten duten erakundeetan biltzen da eta (Estatu Orokorrak, Parlamentua). Beraz, boterea hedatuagoa da eta bereziki talde burges eta aristokraziaren eskuetan aurkitzen da, askatasun-giroa sistema politiko honen adierazpidea izanik ("Mendez Mende. Aro Modernoa": 309).

(Errepublikak kontzeptuari buruz ikus: CHOROA, Fr.; MARTIN, T.; RIVERO, I.: Diccionario de términos históricos y afines. Istmo, Madrid, 1983, 282. or.).

- **Nazioarteko giroa.** Espainiak XVI. mendean zuen hegemonia galdu egingo du. Hogeitamar Urteko Gerratearen ondoren (Westfaliako Bakea, 1648), nazio hegemoniko berrien arteko (Frantzia, Holanda, Ingalaterra) oreka eraikiko da. XVII. mendearen bigarren erdialdean ("itsasoan eta kontinente europarraren hegemonia bila") aipatu estatuarteko hegemoni borroka gertatuko dira. Politika frantsesa, erresumaren mugak diplomaziaren eta gerraren bidez zabalduz burutu zen ("Mendez Mende. Aro Modernoa": 303. or.). Frantziaren hegemonia, Westfaliako Bakearen ondoren hasi zena, anxio-gerretan ahulduz joan zen. Ryswick-eko bakean, 1697, Frantziak lehen atzera-pausoa ezagutzen du Augsburg-eko ligaren aurrean, eta Utrecht-eko bakean (1713) lehen potentzi egoera galduz. ("Mendez Mende. Aro Modernoa": 310-312. or.). Beraz, Colbert-en ministraritzak, Frantziaren hegemonia mantentzeko ahaleginak eginez, nazioarteko tentsio-giroan gertatu zen.

(Ikus KINDER, H. eta HILGEMANN, W.: Atlas histórico mundial. Istmo, Madrid, 1970, 275. or. "Hegemonia" kontzeptua ikus ABOS SANTAMARIA, A.: aip. lib, 258. or.).

Testuinguru ekonomikoa

- **Frantzia.** Monarkia absolutuaren indarra eta euskarria ekonomia sendo bat eraikitzean datza. Ekonomi xedea, beraz, erreinuaren aberastasuna ugartzea zen eta horretarako aberastasunaren adierazpide materiala eta ukigarria zen metal preziatuen metatzeaz arduratzen ziren. Ildo honetatik, Estatuak aberastasuna sortzen den produkzio eta merkatu-guneetan zuzenki eskuhartzen du, administrazio-erabaki edota babes-lege batzuk direla medio. Politika ekonomiko honi merkantilismoa (Colbertismoa Frantzian) deitzen zaio. Ekonomia bideratzeko politika honen (merkantilismoaren) ezaugarriak hauek izan ziren: moneta metatzea, muga-babespena (esportazioak ugartu eta inportazioak gutxitu), nekazaritza eta industrigintzaren garapena eta kanpo-merkatalgoaren hedapena (merkatal konpainiak eta untzigintza direla medio) (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa": 318-319. or.).

- **Holanda.** Nekazal iraultza gertatu aurretik Europako herrialde gehienetan nekazal produktibitatea oso txikia bazen ere, Holandan, landare-txandaketa eta aurrerakuntza tekniko batzuei esker, produktibitatea gehiagotzeko pauso garrantzitsuak eman ziren.

Bestalde, XVII. mendean zehar eta 1651rarte itsas nabigazioan eta itsasoz harandiko merkatalgoan Holandaren nagusitasuna nabaria izan zen, aipatu data horren ondoren itsas merkatalgoaren hegemonia Ingalaterrak jaso zuen arte: Nabigazio-Akta (ikus "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 317, 319. orr.).

* * * *

Aurreko lerroetan, bada, Colbert-en idazkia ulerterrazagoa egiten duen testuinguru historikoa eman dugu, Frantzia eta Holandaren sistema ekonomiko-politikoaren ezaugarriak eta beraien arteko ezberdintasunak adierazten dituenak, hain zuzen ere.

EGITEKOAK

1. Frantziak eta Holandak dituzten unzigintza-lekuak, portuak eta merkatal bideak mapa batetan koka.
2. Frantziak eta Holandak dituzten industriguneak mapa batetan koka.

(ROIG OBIOL, J.: Atlas de Historia Universal y de España. 2. Ed. Moderna y Contemporánea, Vives, Barcelona, 1980. 36-37. orr. BARRACLOUGH, G.: Le Grand Atlas de l'histoire mondiale, Albin Michel, Verona, 1979. 180-181, 192-193. orr. MARTINEZ RUIZ, E.: Atlas histórico. Edad Moderna, Alhambra, Madrid, 1986, 120, 123. orr.).

3. Luis XIV.aren garaiko egoera politikoa (barne- eta kanpo-politika) azaltzen duen mapa burutu, hots, erresumaren mugen hedapena zein unetan gertatu den azpimarratu.
4. Luis XIV.aren garaian Frantziak kanpoko herrialdeekin izan dituen gerren eta bakeen kronologia burutu, barra kronograma bat egin.
5. Lauki bat burutu Frantziaren aurkako aliantzak azalduz.

(Atlas histórico integral, Spes, Barcelona, 1983, 44. or. MARTINEZ RUIZ, E. (1986): aip. lib., 132-135. orr. BARRACLOUGH, G.: (1979): aip. lib., 192-193. orr. KINDER, H., HILGEMAN, W.: Atlas histórico mundial 1. Istmo, Madrid, 1970, 275. or.).

ERANTZUTEKOAK (A Maila)

1. Idazki honen egilea nor zen, eta zein beraren garrantzia?
2. Colbert-en testua irakurriz, Frantziaren eta Holandaren egoerak pareka itzazu:
 - a) non datza Holandaren indarra.
 - b) non datza Frantziaren indarra eta non beraren ahultasuna.
3. Idazkian zein eratako merkatalgo motak aipatzen dira?
4. Frantses merkatalgoa zeintzu produktutan oinarritzen zen?
5. Aipatzen diren produktuen sailkapena egin:
 - a) industri sektoreen arabera.
 - b) erabiltzen dituzten lehengaien jatorriaren arabera.
6. Aipatzen diren produktuen erabilpena edo funtzioa zein zen?
7. Oihal bater zirkuitu ekonomikoa azaldu ezazu, hau da, nolako pertsona mota eta sektore ekonomikotatik pasatzen den azpimarratuz.
8. Testuak dioenez, "manufaktura guztiak kasik erabat hondatuta egon dira eta daude": Zein uste duzu dela egoera honen arrazoa?

(6-7)

(TAYLOR, L.: El Siglo XVII. Colecc. Pueblos del Pasado, Molino. Barcelona 1983. BRAUDEL, F.: Civilización material y capitalismo, Labor, Barcelona, 1974. Jantzki eta modari buruz 243-260. orr., paperaz 308-309. orr. LIMOUSIN, O.: Historia del papel, Altea, Madrid, 1986).

ERANTZUTEKOAK (B Maila)

1. Frantziaren eta Holandaren artean dagoen untzi-kopuru ezberdinak zer inplikazio du Frantziaren ekonomian?
2. Holandak aipatu itsas hegemonia lortzera heltzeko zeintzu bide jarraitu ditu? ("Mendez Mende. Aro Modernoa": 319. or.).
3. Frantziako erregeen boterea lehorraldean zein mailatakoa eta motatakoa da?
4. Goian aipatu botere hori nola heldu da "Europako guztien gainetik izatera".
5. Idazki honen arabera, zeintzu harreman daude merkatalgoaren eta industriaren artean?
6. Frantses merkatalgoaren egoera kaskarraren zergatia non sustraitzen da?
7. Frantziako erret botere politikoaren eta botere ekonomikoaren artean zeintzu harreman daude?

(3-4)

(CROUZET, M.: Historia general de las civilizaciones. Los siglos XVI-XVII, T4, Destino, Barcelona, 1974, 339-342. orr.).

ERANTZUTEKOAK (C Maila)

1. Frantziak 1663an ezagutzen duen une hori zein testuinguru historikotan kokatzen da, eta nola heldu da Frantzia egoera horretara?
2. Non datza Colbert-en kezka eta ardura barne- eta kanpo-politika ekonomikoan?
3. Aipatzen den egoera gainditzeko zeintzu uste dituzu izango direla haren irtenbide eta erabakiak politika ekonomikoan?
 - 3.1. Zeintzu sektore ekonomiko bultzatuko dituela uste duzu, eta nola?
 - 3.2. Merkatalgo mota hauen artean, barne-merkatua eta porturik porturakoa, zein bultzatuko du?
 - 3.3. Herri-aberastasuna lortzeko nola antolatuko ditu inportazio- eta esportazio-kopuruak?
 - 3.4. Ekonomiaren garapena lortzeko bide horretan untzigintzak zein funtzio jokatzeko du?
 - 3.5. Laburbilduz, hartu behar diren neurri ekonomikoen eraginez, sistema ekonomikoaren sektore ezberdinen artean zeintzu harreman finkatzen dira (Diagrama bat egin).
4. Colbert-en politika ekonomikoak nazioarteko politikarekin zer egokitasun du, eta zeintzu inplikazio ditu?
 - 4.1. Frantziak eta Holandak duten egoera ezberdina aztertuz, Frantziak Holandarekiko zein kanpo-politika izan dezake.
 - 4.2. Frantziaren politika hegemonikoak, ekonomiaz arduratzeaz gain, zeintzu alorren garapena eskatzen du, eta zeintzu izango direla uste duzu politika hegemonikoak dituen alorren irabaziak eta galerak?

(1)

("Mendez Mendeko Aro Modernoa": Sistema politikoaz, 290-304. orr.; sistema ekonomikoaz, 317-320. orr.; demografiak 314. orr.; halaber. KINDER-HILGEMAN, W.: aip. lib.: 275-277. orr.).

(2)

("Mendez Mendeko Aro Modernoa": 318. orr.)

(4.1.)

KINDER-HILGEMAN, aip. lib. 275. orr.

(4.2.)

Ibidem 276-277. orr. CROUZET: aip. lib.: 339-342. orr.).

LAN-PROGRAMAK

Agiritegiaren basoan galdu gabe, irakasleak langaiak nola hauta eta programa jakiteko, iradokizun batzuk emango ditugu ondoko aipu hauetan. Programatxo hauek ez dituzte, noski, bildumaren ahalbideak agortzen.

Bi motatako programa-gidoiak prestatu ditugu, Agiritegiaren barnean ibili eta aukeratzeko lagungarri izango direlakoan:

- a) Lan-gidoi orokorrak (kronologiko-tematikoak)
- b) Lan-gidoi monografikoak (gai berezikoak).

Lan-gidoi orokorretan bi ikastarotarako eskemak eskaintzen ditugu (I. eta II.a); gidoi monografikoetan, ostera, ikasturtearteko aztergaien programak hautatzea eta eratzea irakaslearen esku geratzen dira: erabiltzai-leak bere gisara ikus dezake, zein gai dituen egokienak, eta "menua" nola moldatu behar duen.

Lan-gidoi orokorretan, lau gai-barrutitan banatu dira aroz aro eta geografikoki ere banatutako agiriak, programaketa, beraz, ezker-eskuin nahiz goitik behera egin ahal izango du taldearen arduradunak edo irakasleak berak ere. Hau da: Ondoko proposamenak segiz, ekonomia, gizartea, kultura nahiz politika azter litezke aroak zehar, lan-gidoi orokorretan, edota, nahiago bada, herriz herri joanez, nahiz munduko eskualde handiak aztertuz.

Lan-gidoi monografikoetan ez ditugu biltzen, beren orokortasunean bederen, orokorretan jasotako gai-barrutiak (ekonomia, etab.), gai puntual xeheagoak baizik: lana, emakumea, iraultza, hizkuntzak, hiriak, etab.

a) LAN-GIDOI OROKORRAK (I)

<p style="text-align: center;">ARAZ ARO Denboraren harian</p>	<p style="text-align: center;">GAI-BARRUTIEN ARABERA 1. Aroz aro. 2. Gaiez gai</p>			
<p>ARO ETA GEOGRAFI ESPARRUAK</p>	<p>EKONOMIA</p>	<p>GIZARTEA</p>	<p>KULTURA</p>	<p>POLITIKA</p>
<p>Gizakiaren eboluzioa</p>	<p>HA 1:015</p>	<p>HA 1:010 HA 1:012</p>	<p>HA 1:001 HA 1:004 HA 1:006</p>	<p>-</p>
<p>Paleolitoa</p>	<p>HA 1:019</p>	<p>HA 1:016 HA 1:022</p>	<p>HA 1:017 HA 1:020</p>	<p>-</p>
<p>Neolitoa</p>	<p>HA 1:031</p>	<p>HA 1:013</p>	<p>HA 1:033</p>	<p>-</p>
<p>Egypto</p>	<p>HA 2:001</p>	<p>HA 2:003</p>	<p>HA 2:002</p>	<p>-</p>
<p>Mesopotamia</p>	<p>HA 2:024</p>	<p>HA 2:019 HA 2:023</p>	<p>HA 2:018 HA 2:022</p>	<p>HA 2:025</p>
<p>India</p>	<p>HA 2:040</p>	<p>HA 2:41</p>	<p>HA 2:042 HA 2:044</p>	<p>HA 5:201</p>
<p>Txina</p>	<p>HA 2:058</p>	<p>HA 2:059</p>	<p>HA 2:057</p>	<p>HA 2:056</p>
<p>Grezia</p>	<p>HA 2:084</p>	<p>HA 2:076</p>	<p>HA 2:082</p>	<p>HA 2:078 HA 2:081 HA 2:086</p>
